

• [RSS jarria](#)

#txiotesia2 lehiaketako irabazleak Itziar Gonzalez-Dios eta Eneko Bidegain dira

2014/11/26 - Unibertsitatea.net

Itziar Gonzalez-Dios UPV/EHUko IXA Taldeko doktoregaia izan da "Txiolari ulergarriena". Eta 2012an doktorego-tesia aurkeztu zuen eta egun Mondragon Unibertsitateko irakaslea den Eneko Bidegain "Txiolari originalena". Bestetik, 2. edizioko txiolari guztien txioak bildu ditugu "Txiotesia" deritzon atalean.

Koldo Mitxelena Kulturunean ospatu berri dugun "Txioak zure tesia 6 mezutan" Sari Banaketa Ekitaldian ezagutu ditugu 2. edizioko irabazleak: **Itziar Gonzalez-Dios** izan da "Txiolari ulergarriena" eta **Eneko Bidegain** "Txiolari originalena".



Argazkia: #txiotesia2-ko irabazleak: Eneko Bidegain eta Itziar Gonzalez-Dios

Txiolari ulergarriena: Itziar Gonzalez Dios (@ItziarGD).

Itziar Gonzalez-Dios Pasai San Pedrokoa da eta 26 urte ditu. Alemaniari Filologian lizentziatu zen UPV/EHU eta egun tesia egiten dabil unibertsitate bereko IXA Taldean. Bere tesiaren behin-behineko izenburua "Egitura sintaktiko konplexuen identifikazioa eta sinplifikazioa euskararen tratamendu automatikoan" da eta 2015 amaieran edo 2016 hasieran irakurtzeko asmoa du.

Hauek izan dira #txiolari ulergarriaren txio irabazleak (ikusi bere twitterreko parte hartzea "Txiotesia" atalean):

- 1 Egitura sintaktiko konplexuen identifikazioa eta sinplifikazio automatikoa euskararen tratamendu automatikoan. #txiotesia2
- 2 A ze esaldi luzea! Bai hitz arraroa! Ez dut ulertzen! Testua zeharo konplexua da! Sinplifikatu daiteke? #txiotesia2

Hvaghvavh nkznz kl jbs jh lkzj o zl mlzn knlz kz kmihv ljzohahfvpuiohpa vnzjvkike cvnb gertatzen denean, vjshbhsalnkvalky njkhvjdfhap ikusten ez den arren, hcjhcajkckjlkahjvh vhbajhvbanca jbvja nvknsdbnlkvakzn vjksasjkn osatuko da. Zhfashjk jbiszjznejhvsj vlej jvkvsikvnlsvmzj itaundu.

- 3 ErreXaili galdetuko diot, ea zer dioen! ErreXail testuak konplexuak edo sinpleak diren automatikoki esateko gai den sistema da #txiotesia2
- 4 Testua konplexua da! Eta sinplifikatuko dut! Hitz zailak ordezkaturko ditut eta esaldiak banaturko ditut. #txiotesia2

Hvaghvavh nkznz kl jbs jh lkzj o zl mlzn knlz kz kmihv ljzohahfvpuiohpa vnzjvkike cvnb gertatzen da. Orduan, vjshbhsalnkvalky njkhvjdfhap ez da ikusten. Hala ere, hcjhcajkckjlkahjvh vhbajhvbanca jbvja nvknsdbnlkvakzn vjksasjkn osatuko da. Zhfashjk jbiszjznejhvsj vlej jvkvsikvnlsvmzj galdetu.

- 5 Ederki! Testu berri honek jatorrizkoaren esanahia mantendu du baina ulergarriagoa da! Itzulpen automatikoa ere hobea da! #txiotesia2
- 6 Sinplifikatutako testuek abantaila ugari eskaintzen dituzte. Gainera, automatikoki eginez, denbora eta lana aurrezten da. #txiotesia2

Txiolari originalena: Eneko bidegain (@enekobidegain).

Eneko Bidegain kazetari eta idazle baionarra da eta 39 urte ditu. Euskal Ikasketak egin zituen Baionan eta 2012an aurkeztu zuen doktorego-tesia: "Lehen Mundu Gerra Eskualduna Asteakarian". Gaur egun irakaslea da Mondragon Unibertsitatean, Aretxabaletako Campusean.

Hauek izan dira #txiolari originalenaren txio irabazleak (ikusi bere twitterreko parte hartzea "Txiotesia" atalean):

1. "1. Mundu Gerra Eskualduna-n" Alemanen aurka herraz, 7.000 ale erraz zabaltzen ziren euskaraz eta zer idazten zuten gerraz? #txiotesia2
2. Orri ta berriak urri, eta zentsura bihurri. Kazetariak soldadu eta erreportaje iturri. #txiotesia2



3. Alemana deabrua, Ta Frantzia aingerua, Idazle haiek argi zeukaten Noren alde zen zerua. #txiotesia2



4. Desertorentzat lotsa Soldaduentzat poza Idazten zuten frantsesa zela Euskaldun onen bihotza #txiotesia2





5. Frantses armada "gurea", Goraipatuz adorea, "Herriarentzat" hiltzea baitzen euskaldunen ohorea. #txiotesia2



6. Gerran ibilirik prestu Frantzia zuten babestu Eskualduna-tik eta euskaraz Herria zuten frantsestu #txiotesia2



Sari Banaketa Ekitaldiari hasiera **Iñaki Alegriak** (UEUren zuzendaria) eman dio. Aurtengoaren **balorazioa** egin du eta iaz esandakoa berretsi du: zeinen aberasgarria izan den hainbeste ikertzaile euskaldunen lanen berri izatea. **Iñaki Larrea (@Iarrea)** #txiotesia2-ko **epaimahaikideak** ere ildo beretik hitz egin du.

Honez gain, ekitaldian **Jon Mattin Matxain (@TxoniMatxain)** kimikariaren eta ikertzailearen "Ikerketa buruan eta ibili munduan" hitzaldia entzuteko aukera izan dugu, eta bertan, bere ikertzaile bizitzako gora-beherak kontatu dizkigu.

Sari Banaketara hurreraterik izan ez baduzu hona hemen bertan bizitakoa jasotzen duen bideoa:

#txiotesia2 lehiaketako parte hartzaileetako batzuk ezagutzeko eta informazioa trukatzeko aukera paregabea izan da gaurkoa.

Hurreratu ezin izan duzuenontzat, saioa grabatu dugu eta ahal bezain azkar sareraturiko dugu. Hala ere, bitartean, hemen dituzue ekitaldiaren ondorengo irabazle bien hitzak:

Itziar Gonzalez-Dios:

Eneko Bidegain:

Txio guztiak bildu ditugu "Txiotesia" atalean:

Unibertsitatea.net atarian "Txiotesia" atala sortu dugu. Bertan, 9etatik 21etara 2. edizio honetan ikertzaileek egindako ekarpenak bildu ditugu. Era honetan, bakoitzaren ikerketaren laburpena lasai irakurtzeko aukera izango duzu.

Gai benetan interesgarriak ezagutu genituen. Ezagutu zeuk ere!

Azkenik, **zorionak eta eskerrik asko guztio!**... eta 3. ediziora arte!

Unibertsitatea.net (@Uninet_ataria)



Iruzin bat gehitu...

Comment using...



Iñaki Murua

Ez da eronka makala izan lan mardula sei txiotara ekartzea... eta gainera ulertzeko moduko txioak egitea.

Zorionak ekimenagatik eta zorionak irabazleei.

Erantzun · Aisegin dut · Azaroa 30(a)ren 12:19(e)tan

Facebookeko plugin soziala

- [Irsgarritasuna](#)
- [Ohar legala](#)
- [Babesleak](#)

Unibertsitatea.net [UEU](#) ren ekimena da

[CodeSyntaxek](#) software librearekin garatua

3.437.432 bisitari